

## Bazkideen txokoa

Udarregi Ikastolak bazkideen artean Erle Eguneke 4 ezti pote zozketatuko ditu. Saridunei emailaz jakinaraziko zaizue. Zorte on!!



## Jangela abenduaren 19an

Abenduaren 19ko eguerdian DBH, LH eta HH 3-6 urtekoen eskolak 12:30ean amaitzen direnez eta jangelako kudeaketa egokia egite aldera, mesedez, [galdetegi hau](#) erantzun egun horretan jangela zerbitzua beharko duzuen ala ez jakiteko eta, beharko balitz, ikasleari etxera bakarrik joateko baimena ematen zaion ala ez.



## Neguko katalogoa

Urtero bezala, Ikastolen Elkartetik helarazten duten [NEGUKO katalogoa](#) ikusi dezakezue. Aurten, hainbat berrikuntza txertatu dituzte, besteak beste, Lula otsoaren abenturak bilduma berria.

## Iparraldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparraldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2025eko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



## Ikastolako familietako hizkuntzak ezagutuz

Gaur zuen seme-alaba gazteenaren tutoreak erantzuteak 5 minutu baino gutxiago hartuko dizun galdetegi bat bidaliko dizue. Galdetegi honen helburua, gurasoek dituzten beharrak eta gaitasunak ezagutuz, familiekin elkarlana ahalik eta modu egokienean egiteko datuak biltzea da. Familien hizkuntz egoerak ezagutzeak, ikastola eta familien arteko elkarlana hobetzen lagunduko du; beraz, ikasleei euskararen eta hizkuntzen ezagutza eta erabileran eragiten ere lagunduko die.



Familiako galdetegi BAKARRA erantzun behar duzue **GAUR** mesedez. Galdeketa GURASOOK bete dezazuen eskertuko dugu. Mila esker aldeztu aurretik! **Udarregi Ikastolako Hizkuntz Proiektua taldea**.

## Gabonetako aholkuak

Hitz Aho guraso elkartearen baitan sortu genuen Altxa Burua Usurbil lantaldea eta azken bileran kezkatzen gaituen gai batzuen inguruan lanketa bat egiten hasi gara.

Gabonak ate joka ditugula eta Altxa Burua lantaldetik pantailak oparitu ordez, zuen seme-alabei esperientziak partekatzera gonbitea egiten dizuegu.

[Ikusi bideoa.](#)

Aldez aurretik eskerrik asko,

Altxa Burua Usurbil

# HAUR HEZKUNTZA

## Haur Eskolako egoeraz bilera deialdia

Haur Eskolako egoeraz azalpenak emateko, Udal ordezkarizarekin batera, bilera bat egingo da **abenduaren 17an**, asteazkena, **18:00etan** 2-3 urteko gelan.



## Neguko oporrak

Datorren abenduaren 19an, ostiral eguerdian, oporrak hartuko ditugu. Egun horretan, txistorra jango dugu. Ondoren, 11:45ean, Bordatxo pareko Olentzerori abestuko diogu. Bukatzean, ikastolara itzuliko gara. Beraz, haurrak betiko lekuan eta orduan jaso behar dituzue.



Euria egingo balu, ikastolako frontoian abestuko genuke. Kontuan izan, haurrek baserritarrez jantzita etorri behar dutela.

## Baso eskola

Datorren astean ez dugu BASO-ESKOLAKO SAIORIK EGINGO. Oporren bueltan, baso eskolako lehenengo saioa:

HH5: Urtarrilaren 13an

HH4: Urtarrilaren 16ean



# LEHEN HEZKUNTZA

## Hatz 10 kobrantza

Hilabete honetako erreziboarekin batera, Hatz 10 mekanografia ikastaroaren zenbatekoa kobratuko zaie LH 5. eta 6. mailako ikasleei. Kostua **5 €** izango da.



## LH2. mailako irteeraren kobrantza

Dakizuen bezala, ekainak 10 - 11 Arotz Eneara egingo dugu ikasturte amaierako irteera. Hiru zatitan egin ohi dugu zenbatekoaren konbrantza eta lehenengo zatia, **25 €**, hurrengo astean kobratuko da. Norbaitek arazoren bat izango balu, jarri dadila gurekin harremanetan.



## LH1 mailako familientzat oharra

Optometrista frogak pasa zituzten ikasleei 16 € kobratuko zaie hilabete honetako erreziboekin batera.



## Abenduak 19

LHko ikasle eta irakaslez osatutako Udarregiko orfeoia, ostiralean, abenduak 19, goizeko 9:30ean kalez-kale abestera irtengo da. Ondoren, ikastolan txistorra goxoa jango dugu. Euria gutxi egingo balu, aterkiekin aterako ginateke.



## LH5. mailako familientzat oharra

Datorren ostegunean, abenduak 18an, LH5. mailako ikasleek euren aiton-amonak ikastolara gonbidatu nahi dituzte hiruhilabete honetan hainbat arlotan ikasitakoa erakusteko.



ORDUA: 14:30tan Ageri Aldeko patioan elkartuko gara.

NON: Bosgarren mailako ikasleen gelan (Agerialde eraikineko hirugarren pisuan).

Oharra : Igogailua erabiltzeko aukera izango da.

## Ebaluazio-txostenak

Gogorarazten da, **abenduaren 17an, asteazkena**, igoko dira Lehen Hezkuntzako ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora.



# **BIGARREN HEZKUNTZA**

## Material-kobrantza

Abenduaren 16an, hileko erreziiboarekin batera, DBHko ikasleei 2025/26 ikasturteko eskola-materiala kobratuko zaie. Materialaren kostua, **40 €** izango da.



## Atzerriko beka deialdia

Jakinarazten da gaurko egunez argitaratu dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan matrikulatutako ikasleak atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko diru lagundutza [agindua](#).

